# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 5476

AGINDUA, 1995eko abenduaren 11koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, zorizko jokoetarako makina eta tresna automatikoen bitartez egiten diren jokoen gaineko tasaren errekargua ordaindu dela egiaztatzeko ezaugarriaren 1996 urteko eredua onartzen duena.

Bingo jokoaren gaineko zergari eta zorizko jokoetako makina eta tresna automatikoen bitartez egiten diren jokoen gaineko tasari buruzko urriaren 16ko 6/1992 Legearen bidez ezarri zen tasaren errekargua, zein 1993ko urtarrilaren 1ean jarri baitzen indarrean. Lege horrek, gainera, Eusko Jaurlaritzako Ekonomi eta Ogasun sailari eman zion bai tasa kudeatzeko agindua bai kudeaketa burutzeko beharrezko diren zerbitzuak eskaini ahal izateko lurralde historikoetako foru aldundiekin hitzarmenak izenpetzeko ahalmena. Ondorioz, horretarako itunak izenpetu ziren eta Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailaren 1993ko urtarrilaren 13ko aginduaren bitartez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren.

Ekonomi eta Ogasun sailburuaren 1994ko abenduaren 23ko Aginduaren bidez onartu zen zorizko jokoetarako makina eta tresna automatikoen bitartez egiten diren jokoen gaineko tasaren errekargua ordaindu dela egiaztatzeko ezaugarriaren 1995. urteko eredua, horrela makina horiek hobeto kontrolatuta egongo zirelakoan eta arlo horretan diharduten enpresek zerga–betebeharrak hobeto beteko zituztelakoan.

Xedatutakoaren ondorioz, 1996. urteko ezaugarrien ereduak jarri behar direla kontutan hartuta, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Ezaugarri ereduen onarpena

Zorizko jokoetarako makina eta tresna automatikoen bitartez egiten diren jokoen gaineko tasaren 1996ko errekargua ordaindu dela egiaztatzeko ezaugarrien ereduak onartu dira eta agindu honen eraskinean daude jasota.

*2. atala.*– Betebehar formalak.

1.– Zergatutako makina zein lurralde historikokotan kokatuta dagoen, bertako Foru Aldundiak luzatuko ditu agindu honetan onartutako ezaugarri-ereduak, diru sarrera egin dela egiaztatu ondoren.

2.– Ezaugarria makinari itsatsita jarriko da, ondo ikusteko eta behar beste irauteko moduan. Behar hori

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 5476

ORDEN de 11 de diciembre de 1995, del Consejero de Hacienda y Administración Pública, por la que se aprueba el modelo de distintivo acreditativo del pago del Recargo de la tasa sobre el juego que se desarrolla mediante máquinas o aparatos automáticos aptos para la realización de juegos de azar correspondiente al ejercicio 1996.

La Ley 6/1992, de 16 de octubre, del Impuesto sobre el juego del bingo y del recargo de la tasa sobre el juego que se desarrolla mediante máquinas o aparatos automáticos aptos para la realización de juegos de azar, estableció el recargo de la tasa con vigencia a partir del 1 de enero de 1993 y atribuyó al Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno Vasco la gestión del mismo, a la vez que facultaba a este Departamento para acordar convenios de prestación de servicios con las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos al objeto de llevar a cabo dicha gestión. En consecuencia, se suscribieron los oportunos convenios, que fueron publicados en el Boletín Oficial del País Vasco mediante la Orden de 13 de enero de 1993 del Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

Mediante Orden de 23 de diciembre de 1994 del Consejero de Economía y Hacienda se aprobó para el ejercicio de 1995 el modelo de distintivo acreditativo del pago del recargo de la tasa sobre el juego que se desarrolla mediante máquinas o aparatos automáticos aptos para la realización de juegos de azar al considerarse que contribuiría a una mejora en su control y a un aumento del grado de cumplimiento de las obligaciones tributarias de las empresas operadoras.

En virtud de lo dispuesto y considerando necesario establecer modelos distintivos a utilizar en el ejercicio de 1996,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Aprobación de los modelos de distintivo.

Se aprueban los modelos de distintivo acreditativo del pago correspondientes al ejercicio 1996 del Recargo de la tasa sobre el juego que se desarrolla mediante máquinas o aparatos automáticos aptos para la realización de juegos de azar, incluidos en el presente anexo.

*Artículo 2.*– Obligaciones formales.

1.– Los modelos de distintivo aprobados en esta Orden serán facilitados por la Diputación Foral correspondiente al Territorio Histórico donde se ubique la máquina gravada, previa justificación del ingreso.

2.– El distintivo deberá permanecer adherido a la máquina de manera visible y duradera, constituyendo el

ez betetzea zerga arauen hauste arintzat joko da, bai makina edo tresna ustiatzeko baimena duen enpresa titularrarena bai tresna hori instalatuta dagoen toki edo lokalaren enpresariarena.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1995eko abenduak 11.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

incumplimiento de esta obligación infracción tributaria simple, por parte de la empresa titular con autorización de explotación de la máquina o aparato y del titular o empresario del local o recinto donde se halle instalado.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 1995.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

ERASKINA/*ANEXO*

| | |
|---|---|
| EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO<br>*Urtea / Año:* 1996 LEHEN EPEA / PRIMER PLAZO<br>*I.F.Z. / N.I.F.:*<br>*Enpresa Ihard. zk. / Nº Empresa Oper.:*<br>*Baimen zk. / Nº Permiso:*<br>*Makina: Ered. / Máquina: Mod.*<br>*Saldo zk. / Nº Serie:*<br>*ERREKARGO 6/1992 LEGEA, URRIAREN 16 koa.*<br>*RECARGO LEY 6/1992, de 16 de OCTUBRE* | EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO<br>*Urtea / Año:* 1996 BIGARREN EPEA / SEGUNDO PLAZO<br>*I.F.Z. / N.I.F.:*<br>*Enpresa Ihard. zk. / Nº Empresa Oper.:*<br>*Baimen zk. / Nº Permiso:*<br>*Makina: Ered. / Máquina: Mod.*<br>*Saldo zk. / Nº Serie:*<br>*ERREKARGO 6/1992 LEGEA, URRIAREN 16 koa.*<br>*RECARGO LEY 6/1992, de 16 de OCTUBRE* |
| COLOR VERDE | COLOR AMARILLO |

| | |
|---|---|
| EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO<br>*Urtea / Año:* 1996 HIRUGARREN EPEA / TERCER PLAZO<br>*I.F.Z. / N.I.F.:*<br>*Enpresa Ihard. zk. / Nº Empresa Oper.:*<br>*Baimen zk. / Nº Permiso:*<br>*Makina: Ered. / Máquina: Mod.*<br>*Saldo zk. / Nº Serie:*<br>*ERREKARGO 6/1992 LEGEA, URRIAREN 16 koa.*<br>*RECARGO LEY 6/1992, de 16 de OCTUBRE* | EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO<br>*Urtea / Año:* 1996 LAUGARREN EPEA / CUARTO PLAZO<br>*I.F.Z. / N.I.F.:*<br>*Enpresa Ihard. zk. / Nº Empresa Oper.:*<br>*Baimen zk. / Nº Permiso:*<br>*Makina: Ered. / Máquina: Mod.*<br>*Saldo zk. / Nº Serie:*<br>*ERREKARGO 6/1992 LEGEA, URRIAREN 16 koa.*<br>*RECARGO LEY 6/1992, de 16 de OCTUBRE* |
| COLOR AZUL | COLOR ROJO |